

HOBETUZ ETA ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAREN ARAUDI BERRIA

EGOERARI BURUZKO TXOSTENA

2015eko apirila



www.lab.eus

HOBETUZ ETA ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAREN ARAUDI BERRIA

Egoerari buruzko txostena

Aurrekariak

HOBETUZ (Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa) 1995ean eratu zen, **Lanbide arteko Akordio baten ondorioz**. Akordioa indarrean zegoen legediaren babespean sinatu zen (Learen 83.-84. artikulua), gehiengo nahikoekin (LAB, ELA, CCOO, UGT, CONFEBASK), eta Hiruko Akordio bihurtu zen Eusko Jaurlaritza atxiki zitzaionean. Haren helburua da "...EAEEn gauzatzen den etengabeko prestakuntza guztia kudeatzea eta zuzentzea..."; "...eta alderdi sinatzaileek konpromiso bat hartzen dute, alegia, egin beharreko ekintzak gauzatzea Gobernu Zentralak eman dezan HOBETUZi dagokion finantziarioa".

Erakundea abiatzeak etengabeko prestakuntzarako **sistema propio bat garatzeko beharrari erantzun zion**. Hala, sistema **horren ezaugarri nagusiak** hauexek izango ziren:

- **Eredu integrala** izatea (etengabeko prestakuntza osoa barne hartzea).
- **Eskariaren araberako prestakuntza** sustatzea (enpresetan etengabe eta modu sistematikoan egiten den prospekzioaren bidez identifikatzen diren beharrei erantzuten dien prestakuntza, hain zuzen ere).
- **Arreta berezia zuzentzea ETEei**.
- **LHko ikastetxeen protagonismoa** (Lanbide Heziketako ikastetxeen aprobetxamendua optimizatzea, etengabeko prestakuntza emateko).
- Prestakuntza emateaz arduratzea (batez ere hezkuntza sistemako ikastetxeen bidez), **ikastaroak ematea ez dadin bilakatu beste erakunde batzuen zuzeneko edo zeharkako finantziario-bide**.
- **Enpresetako ordezkariak sindikalak badu eskubidea parte hartzeko, informatzeko eta kontsultatzeko**.

HOBETUZen sorrerarekin, **EAEEn neutralizatuta** geratu zen 1992az geroztik FORCEMEk (CEOE, CCOO y UGT) etengabeko prestakuntzaren eremuan zuen **monopolioa**; izan ere, harrezkero HOBETUZ arduratuko zen Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian garatuko zen prestakuntza osoa zuzentzeaz eta kudeatzeaz. Hala eta guztiz ere, euskal Fundazioa eta haren jardura **etengabeko krisian** egon dira hasieratik beretik, Estatu, patronal eta CCOO-UGTren aldetik jasan duen eraso sistematikoaren eraginez.

Lanbide arteko Akordio berri horrek sortu zuen errealitate legal berria onartu beharrean, batzuek zein besteei **erabaki zuten haren garapena ahalik eta gehien oztopatzea**, edozein bitarteko erabiliz, hala nola, FORCEMen jarduera EAEn bultzatzea eta sustatzea, finantziario-bideak ixtea edo "dekretazoak" ezartzea. Horren helburua zen eredu uniformizatzaile eta zentralizatu ezartzea Madrildik, HOBETUzi urtean zuzendu beharko ziren funtsen zenbatekoa une bakoitzeko koiuntura politikoaren mende utzita.

Hori garai hauetan ikus daiteke, adibide gisa:

- **1997-1999.** LHagatik EAEn biltzen zen kuotatik "gertu" zegoen zenbateko bat jarri zen HOBETUZen esku, Aznar Gobernuako presidente izendatzeko beharrezkoa zen sostengua lortzen laguntzeko.
- **2000-2003.** PPK gehiengo osoak lortu zuen, eta, beraz, ez zuen sostengurik behar. Horren ondorioa izan zen funtsak modu drastikoan murriztu zirela.
- **2004-2006.** Funtsak murriztetik funtsak ukatzera pasatu zen. Hala, funtsak patronalaren eta CCOO-UGTren eskuetan utzi ziren, programa-kontratuak sinatzearen bidez.

Bere urteko deialdiak kudeatzeko HOBETUzi bideratutako funtsak (mil./€)									
1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
23,21	27,64	30,05	9,31	9,50	9,69	9,88	0	0	0
							CONFEBASK, CCOO eta UGTrentzako funtsak, programa-kontratuak EAEn sinatzeko		
							7,10	15,8	19,02

Euskal ereduaren behin betiko suntsipena

2007az geroztik, etengabeko prestakuntzaren alorreko **erreforma berriek** (PSOE) **ereduaren norabiderik ezean sakondu zuten**, zeren premisa hauek aldaezin bihurtu baitziren sistemarentzat:

- Funts publikoak patronalaren eta sindikatuen eskuetan jartzen jarraitzea, gobernuari interesatzen zitzaion eredu bermatzeko, hots, kontzertazio soziala eta sindikatuen laguntasuna segurtatzeko.
- "Kutxa bakarra eta merkatu-batasuna" printzipio gisa mantentzea, LHaren zentralizazioa berretsiz eta Autonomia Erkidegoak kudeatzaile huts gisa utziz.
- Langileen prestakuntzaren eta funtsen -kuotak- transferentzia berriz ukatzea, HOBETUZen moduko errealitateak gutxietsiz, nahiz eta horren bidez bete gabe uzten ziren negoziazio kolektiboari buruzko legeak -euren legeak-.
- Beren plantillen prestakuntza planifikatzeko eta kudeatzeko ahalmena enpresen eskuetan uztea, ordezkariak sindikala baztertuz -rol informatiboa eta akonpainamendua soilik uzten zaizkio-. Era horretan, 2004an hasitako eredu indartu zen, nahiz eta eredu hori porrot galanta izan zen, gutxi batzuentzat izan ezik.

Euskal sistemaren suntsipen egoera horren aurrean, **Gazteizko Jaurlaritzak** ez zituen aintzat hartu gehiengo sindikalak Lanbide arteko Akordioaren, euskal ereduaren eta HOBETUZen alde egindako errebindikazio ugariak; aitzitik, bere **jarrera historikoari** uko egin zion eta Madrilen asmoa onartu zuen, ezer ez izatea baino hobea zela argudiatuta, hau da, erabaki zuen onartzea etengabeko prestakuntzaren eredu estatala EAEn garatzeko Madrilek transferituko zituen funtsak, nahiz eta horretarako araudi estatala bete behar zen, baldintza gisa.

Oso erabaki larria, funtsean bi ondorio ekarriko zituena. Lehenik, Jaurlaritzak uko egiten dio EAEko prestakuntzaz bertan erabakitzeari, bertoko beharren arabera eta bertan adostutako joko-arauen arabera; horren ordez, Madrilgo gobernuaren ordezkariordetza bihurtzen da, beste batzuek erabakitzen dutena betetzeko. Bigarrenik, plan hori aurrera eramateko, HOBETUZ gutxietsi zuen, nahiz eta Lanbide arteko Akordio baten babespen sortu zen, prestakuntza eredu propio bat kudeatzeko, kalitatea eta LHko ikastetxeen protagonismoa oinarritzat hartuta. Horren ondorioz, bertan adostutako Lanbide akordio bat deskapitalizatu zen, Madrilek ezarritakoari men eginez, pultsu politikoa planteatu gabe eta sistema noraezean utziz.

Puntu horretara iritsita, LABek erabaki zuen, ELArekin batera, EAerentzat adostutako prestakuntza ereduaren aurkako erasoren **konplize ez izatea**; ildo beretik, erabaki zuen ez kolaboratzea inposaketarekin eta eredu horrekin, zeren ez baitu balio euskal langileen eta ekoizpen-sarearen beharrei erantzuten dien prestakuntza emateko, eta, gainera, finantziario- eta negozio-iturri izaten jarraitu nahi du CONFEBASK, CCOO eta UGTrentzat.

Gaur egun, HOBETUZek urtero jasotzen dituen funtsen (22 milioi euro inguru) ia erdia CONFEBASK, CCOO eta UGTri asigantzen zaie zuzenean (8,2 milioi €), eta gainerako aurrekontua prestakuntzan diharduten ikastetxeen artean -200 inguru- banatzeko uzten da. Eta horrela 7 urte igaro dira.

HOBETUzi 25,7 milioi euro eskatzen dizkiote

HOBETUZ autonomiarik gabe eta etengabeko mendetasun egoeran izan dute, bai finantza aldetik eta bai eredu propioa garatzearen aldetik, eta hori islatzen duen egoera bat Madrildik etorri den azken erreklamazioa da, alegia, 25,7 milioi euro eskatzen zaizkio, 1996-1999 garaikoak, Euskal Fundazioak erabili ez zituen eta Eusko Jaurlaritzari itzuli zizkion europar funtsengatik.

Berriz ere, ulergaitza da Lakuak erakutsitako jarrera, zeren ia esaten baitu Jaurlaritzak ez duela zerikusirik gai horrekin, erreklamazioak ez duela loturarik berarekin; izan ere, HOBETUZen alde ez agertzeaz gain (5 kide ditu, hau da, haren partaideen 1/3), ondo baino hobeto daki jaso egin zuela erabili gabe geratutako soberakina.

Enplegurako Lanbide Prestakuntza Sistema erreformatzeko "dekretazo" berria

(4/2015 ELD, martxoaren 22koa)

20 urte igaro behar izan dira, **eta gizartea gero eta neurri handiagoan konturatu behar izan da funtzionamendu txarraz, iruzurraz, arpilatzeaz...**, gai horrekin zerikusia duen guztian, **Estatuko Kontu Auzitegia izan dadin ordena jartzera etorri dena** eta LABek, gehiengo sindikalarekin batera, milaka aldiz salatu dituen gaitzak agerian utzi dituen.

Hala, Enplegurako Prestakuntzarako Hiruko Fundazioaren (lehengo FORCEM) kudeaketari buruz Auzitegiak 2014an egin zuen fiskalizazio-txostenak agerian uzten ditu sistemaren ustelkeria eta eraginkortasunik eza; gainera, dirudienez, haren gomendioen ondorioz sortu da berriki onartu den araudi berria. Hona hemen **Auzitegi horren ondorio batzuk**:

- Enpresa-erakunde eta sindikatu onuradunak "epaile eta alderdi" dira diru-laguntzak asignatzeko prozeduran.
- Erakunde horiek azpikontratatu egiten dituzte exekutatzan ez dituzten zenbatekoak.
- Finantziarioa asignatzeko metodologiak (% 50 enpresariei eta % 50 sindikatuiei) ez ditu planak finantzatzan aurretik definitutako helburuen arabera, baizik eta diru-laguntza eskatzen duen erakundearen eta haren ordezkagaitasunaren arabera.
- Hainbat ikaslek prestakuntza-ikastaro ugaritan parte hartzen dute. Hala, adibidez, 398 ikaslek 6.068 prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten urtebete batean (batzuek 50 ikastaro baino gehiago).
- Ez dago ikastaroen jarraipen eta kontrol egokirik.
- Ikasle batzuek eskaintzako ikastarotan parte hartzen dute, nahiz eta eskariko prestakuntzaren bidez iritsi beharko ziren (enpresaren eremuan ematen dena, enpresak finantzatuta). Auditatutako urtearentzat estimatzen den kostua: 40.384.278 €.
- Guztira 16.505 prestakuntza-taldek, 231.459 ikaslerekin –hau da, deialdian ziurtatutako talde guztien % 25,66 eta parte-hartzaileen osoko kopuruaren (788.740 ikasle) % 29,35-, diru-laguntza emateko data baino lehen amaitu zuten ikastaroa, eta, hortaz, ezinezkoa izan da ikastaroaz egin beharreko jarraipen eta kontrola denbora errealean egitea.
- Sistemaren kalitate, inpaktu, eraginkortasun eta efizientzia orokorrean ebaluatzeko plan bakarra izan zen ikasleek betetako satisfazio-galdetegiaren informazioa aztertzea, besterik ez. Hau da, ez zen benetan aztertu zer inpaktu izan zuten prestakuntza-ekintza horiek enpresen produktibitatearen hobekuntzan eta langileen enplegarritasunean.
- Garbi ikus daiteke Hiruko Fundazioak onartu egiten duela erakunde onuradunek diru-laguntzaren justifikaziorako aurkezten dituzten kostuen ehuneko handi bat, baina hori ez da gertatzen diru-laguntza emateko araudian ezarritako baldintzak neurri handian betetzen direlako, baizik eta SPEEK egin beharreko jarraipen eta kontrol ekintzak inola ere aski ez direlako, eta, halaber, Hiruko Fundazioak azterketa gutxi egiten dituelako aurkezten zaizkion justifikazio-kontuez.
- Erakunde onuradunek ez dute barne-baliabiderik edo ordutegiaren kontrolerako sistema egokirik planak gauzatzera benetan zuzendu den ordu kopurua modu objektiboan determinatu ahal izateko. Horregatik, ezinezkoa izan da deklaraturako orduak eta egotzitako kostuak zehaztasunez egiaztatzea (55 milioi € baino gehiago).
- Planak gauzatzeko xedez erakunde onuradunei transferitu zitzaizkion funtsek sortutako finantza-etekinak oso txikiak dira, Auzitegi honen iritziz. Izan ere, nahiz eta guztira 412 milioi € transferitu ziren, finantza-etekinak 197.390 euro baino ez ziren izan.

Hala, azken bi hamarkada hauetan **45 mila milioi € inbertitu ondoren, konklusioa da ereduak eraginkortasunik gabekoak izan direla: ez diete erantzun ekoizpen-sarearen beharrei, eta ez dira baliagarriak izan enplegagarritasuna hobetzeko**. Ereduan parte hartu duten erakundeen finantziario erregular eta irregularrerako, aldiz, baliagarria izan da, zeren prestakuntza negozio partikular bihurtu baitute eurentzat.

Adar-jotze galanta euskal langileei, gaur egun ere ikusten baitute ukatu egiten zaiela kalitatezko etengabeko prestakuntzarako eskubidea.

Orain, martxoaren 22ko 4/2015 ELDaren bidez, **PPk eredu bat birdefinitu nahi du**; funtsean, helburua da **eskaintza enpresarien beharretara egokitzea eta, aldi berean, patronala eta sindikatuak "kanporatzen ditu" ikastaroak emateko zereginetik eta erabakitze-organoetatik**. Horren bidez, aurreko ereduaren diseinuan izan duen ardura ezkutatu nahi du, zeren ustelkeria larria eragin baitu, prestakuntza-funtsean kudeaketari lotutako sare mafiosoak – horixe baitira benetan- desegiteko egin diren azken operazio polizial eta judizialek agerian utzi duten bezala. **Nolanahi ere, araudi berriak mantendu egiten ditu lehengo ereduaren elementu estruktural eta oinarritzko zutabe gehienak, hau da, prestakuntzaren negozioa kudeatzeko ahalmena patronalari, CCOOri eta UGTri bermatzen dizkieten elementu estruktural eta oinarritzko zutabe gehienak**.

Panorama horren aurrean, uste dugu Eusko Jaurlaritzaren oraingo arduradunek ez dutela oztopo handirik jarriko eredu hori EAEn ezartzeko, gai horren egoera penagarria eta haren inguruan sortutako interesak ezkutatu. Dena dela, ereduaren ezarri baino lehen, azaldu beharko lukete zergatik gertatzen den jarraian aipatzen dena:

- Langileei eta langabeei zuzenduta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan gaur egun garatzen den prestakuntza-sistema euskal langile gehienak ordezkatzen dituzten erakunde sindikalen parte-hartzerik gabe gauzatzen da.
- EAEn gaur egun garatzen den prestakuntza sistemaren oinarria da Administrazio autonomikoak bete gabe utzi duela etengabeko prestakuntzari buruz 1995ean sinatu zen Lanbide arteko Akordioa, hau da, patronalak eta beharrezkoak diren gehiengo sindikalek lan-legediaren babespean sinatutako Lanbide arteko Akordioa. Beraz, oinarria akordio horren urraketa larria da.
- Euskal sistemaren defizit estrukturala mantentzen da, finantziarioari dagokionez (kutxa bakarra).
- Akordio horretan, enpresek detektatutako eta langileek adierazitako beharrei erantzuten zien eredu propio baten alde egiten zen, prestakuntza-kalitate irizpideekin eta ikastaroak emateko protagonismoa LHko ikastetxei emanez; orain, aldiz, Madrildik diseinatutako eredu bat ezarri da berriz ere. Eredu horrek beste eredu batzuen aplikazioa eta garapena baldintzatzen ditu finantziario aldetik, eta, gainera, prestakuntzaren negozioa kudeatzeko ahalmena CEOE patronalari, CCOOri eta UGTri bermatzen dieten elementu estruktural eta oinarritzko zutabe gehienak mantentzen ditu.
- Uko egiten dio eredu propioari, hainbestera non Konstituzio Auzitegiaren zalantzetatik harago doan, zentzu negatiboan, Etengabeko Lanbide Prestakuntzarako kutxa bakarraren irizpideari dagokionez.

Etengabeko Lanbide Prestakuntzak **funtsezko garrantzia du euskal ekonomiaren lehiakortasunarentzat**, eta, hortaz, **ezinbestekoa da neurri erradikalak hartzea**. Horregatik, hauxe exijitzen diogu Jaurlaritza honi:

- Erabateko ahalmena izatea Etengabeko Lanbide Prestakuntza antolatzeko, HOBETUZ sortzera eraman zuen eredu adostuaren ezaugarriak berreskuratuz eta indartuz, hau da: eredu integrala; eskariaren araberako prestakuntza; ETEentzako arreta berezia; LHko ikastetxeen protagonismoa ikastaroak emateko; ordezkaritza sindikalaren parte-hartze, informazio eta kontsulta eskubidea...
- Eredu hori garatzeko beharrezkoa den finantziazioa izatea, kuoten bidez edo kupo sistemaren bidez.